

MESA DE DIÁLOGO SOCIAL

ACUERDO EN MATERIA DE NEGOCIACIÓN COLECTIVA

La Mesa de Diálogo Social, integrada por representantes del Gobierno Vasco y las organizaciones patronales y sindicales Confebask, CCOO de Euskadi y UGT de Euskadi, en su sesión celebrada el día 22 de julio de 2016, ha aprobado el siguiente acuerdo.

ACUERDO DE LOS AGENTES SOCIALES Y EL GOBIERNO VASCO EN MATERIA DE NEGOCIACIÓN COLECTIVA

Euskadi se enfrenta a grandes retos que requieren de una verdadera transformación económica y social con una clara visión a largo plazo y con el compromiso de todos los agentes involucrados. En lo concerniente a la actividad económica ya se apuntaba en la Declaración que el Gobierno Vasco, Confebask, CCOO y UGT suscribieron en el ámbito de la Mesa de Diálogo Social el 31 de enero de 2015 que el tejido productivo debe ser *“intenso en conocimiento y cualificación, apoyado en una economía industrial avanzada y con un alto grado de competitividad sustentado en las personas”*.

Necesitamos empresas competitivas para poder abordar con éxito los retos del nuevo siglo, porque son las empresas, empresarios y sus trabajadores el principal motor de generación de riqueza y empleo de calidad. Empresas que en su vertiente social deben generar dinámicas que apuesten por mantener la cultura del diálogo y el acuerdo, como elementos básicos de las relaciones laborales, teniendo presente su contribución a la competitividad y sostenibilidad del proyecto empresarial a largo plazo, que es la mejor garantía para el impulso de un empleo de calidad y estable que permita a los trabajadores y trabajadoras participar en la distribución equitativa de los resultados generados.

Sin embargo, estos retos están siendo abordados con una negociación colectiva que, en su proceso de actualización, atraviesa dificultades serias, aunque la renovación reciente de convenios sectoriales relevantes -algunos incluso decaídos por la finalización de su ultraactividad- permite constatar que sigue siendo posible y necesario apelar a nuestra propia responsabilidad para suscribir acuerdos que permitan ir superando aquellas dificultades.

Creemos que una negociación colectiva moderna, actualizada y en permanente adaptación a un entorno nuevo, progresivamente globalizado, complejo e intensamente tecnológico, sigue siendo un mecanismo útil para la normalización y la modernización de las relaciones laborales.

Desde este convencimiento, los participantes en la Mesa de Diálogo Social mantenemos nuestra apuesta por el importante papel que la negociación colectiva en su conjunto, especialmente la de ámbito sectorial territorial, tiene para las empresas vascas y sus trabajadores.

Para ello, creemos que es responsabilidad de las organizaciones sindicales y empresariales dotar a la negociación colectiva en su generalidad, pero especialmente a los convenios sectoriales que les son propios, de la configuración, los contenidos y los instrumentos necesarios para que siga ocupando un papel relevante en el gobierno de las relaciones laborales.

En este contexto, creemos que, en un marco negociado de relaciones laborales y como ha venido siendo hasta ahora, la opción preferente es el convenio dotado de eficacia normativa y aplicación general, es decir, con virtualidad jurídica de afectar al conjunto de las empresas y trabajadores incluidos en su ámbito, como lo demuestra el hecho de que las organizaciones empresariales territoriales que integran CONFEBASK y las organizaciones sindicales CCOO y UGT seguimos firmando con este carácter cuantos convenios colectivos han contado con las mayorías que dependen de nosotros, evitando así su decaimiento.

Allí donde estas mayorías no eran suficientes para alcanzar acuerdos de eficacia general, también se han alcanzado en algunos casos acuerdos de eficacia limitada más que razonables como demuestra el hecho de la masiva adhesión a los mismos de todos los potencialmente afectados por ellos.

Ahora bien, los agentes sociales participantes en la Mesa de Diálogo Social, respetando siempre la autonomía de la voluntad de los integrantes de las distintas mesas de negociación, consideramos que en aquellos escenarios en los que no sean factibles acuerdos sectoriales de eficacia normativa y general, también resulta de interés la suscripción de acuerdos de eficacia limitada cuando se alcancen consensos capaces de conjugar adecuadamente los intereses y aspiraciones de empresas y trabajadores.

De acuerdo con los antecedentes expuestos, los participantes en la Mesa de Diálogo Social adquieren los siguientes

COMPROMISOS

1. *Difusión de los convenios de eficacia limitada*

Con el fin último de impulsar y renovar la regulación colectiva sectorial, allí donde no sea posible alcanzar acuerdos generales pero resulte factible la adopción de acuerdos de eficacia limitada, la representación de las asociaciones empresariales y sindicales integrantes de la Mesa de Diálogo Social se comprometen a propiciar la máxima difusión y aplicación de estos acuerdos de eficacia limitada entre las empresas y trabajadores afectados con el fin de otorgarles el mayor grado de eficacia y aplicación.

En cumplimiento de este fin, el Gobierno Vasco se suma al señalado compromiso para lo que colaborará de forma activa en su difusión y conocimiento general, mediante el depósito y publicación de los acuerdos que, suscritos por las representaciones sindicales y empresariales, no alcancen los niveles de representatividad requeridos por el artículo 89,3 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores para su eficacia general.

2. *Protección del ámbito vasco de negociación*

Para proteger nuestra negociación colectiva sectorial es necesario otorgar prioridad a lo negociado en los distintos territorios de la Comunidad Autónoma de Euskadi y hacerlo además con la mayor amplitud posible a través de un Acuerdo Intersectorial de Estructura que otorgue preferencia aplicativa, frente a lo negociado en otro ámbito superior, a aquellos contenidos que libremente las distintas mesas de negociación sectorial sean capaces de acordar.

Por ello, las organizaciones empresariales y sindicales integrantes de la Mesa de Diálogo Social apostamos por un Acuerdo Interprofesional de Estructura que permita una aplicación real y efectiva de los convenios colectivos territoriales de eficacia general que se suscriban en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

3. *Búsqueda permanente de acuerdos*

Desde esta doble óptica de salvaguarda de nuestro ámbito de negociación pero también de una profunda renovación y transformación del mismo, los agentes sociales participantes en la Mesa de Diálogo Social consideramos que es nuestra responsabilidad mantener las negociaciones y seguir buscando y promoviendo soluciones para alcanzar acuerdos que impulsen un empleo estable y de calidad y refuercen la capacidad de competir de las empresas.


Vitoria-Gasteiz, 22 de julio de 2016



Arantza Tapia
Consejera de Desarrollo
Económico y
Competitividad



Angel Toña
Consejero de Empleo y
Políticas Sociales



Cristina Uriarte
Consejera de Educación,
Política Lingüística y
Cultura



Roberto Larrañaga
Presidente de CONFEBASK



Unai Sordo
Secretario General de
CCOO-Euskadi



Raúl Arza
Secretario General de
UGT-Euskadi

GIZARTE-ELKARRIZKETARAKO MAHAIA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOARI BURUZKO AKORDIOA

Gizarte Elkarrizketarako Mahaiak, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta Confebask, CCOO (Euskadi) eta UGT (Euskadi) erakunde patronal eta sindikalek, 2016ko uztailaren 22an eginiko saioan, ondoko akordioa onartu du:

GIZARTE-ERAGILEEN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARTEKO AKORDIOA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOARI BURUZ

Euskadik erronka handiei egin behar die aurre: erronka horiek ekonomia eta gizartea eraldatzea eskatzen dute, epe luzerako begirada argia erabilita eta tartean dauden eragile guztien konpromisoarekin. Jarduera ekonomikoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak, Confebask, CCOO eta UGTk 2015eko urtarrilaren 31ko Gizarte Elkarrizketarako Mahaiaren esparruan sinatutako adierazpenean hau azaldu zen ekoizpenaren ehunduraren inguruan: *“sakona izan behar du ezagutzari eta kualifikazioari dagokienez, industria-ekonomia aurreratua izan behar du bermaleku, eta pertsonak oinarri dituen lehiakortasun handia izan behar du”*.

Enpresa lehiakorrak behar ditugu, mende berriko erronkei arrakastaz aurre egiteko; izan ere, enpresak, enpresariak eta langileak dira aberastasunaren sorreraren eta kalitatezko enpleguaren motor nagusia. Enpresek, euren alderdi sozialean, elkarrizketaren eta akordioaren kulturari eustearen aldeko dinamikak sortu behar dituzte, lan-harremanen oinarritzko elementu gisa. Halaber, enpresa-proiektuak epe luzera duen lehiakortasunari eta iraunkortasunari egiten dieten ekarpenaren jakitun izan behar dute enpresek, hori delako berme onena kalitatezko enplegu egonkorra bultzatzeko. Hain zuzen ere, enplegu horren bidez emango zaie bide langileei eragindako emaitzen bidezko banaketan parte hartzeko.

Alabaina, erronka horiei negoziazio kolektibotik ekin zaie, eta negoziazio hori eguneratzeko prozesuan zailtasun handiak daude, nahiz eta azken aldirik sektore garrantzitsu batzuetako hitzarmenak berriro izanak (batzuk ahuldu egin ziren,

aurreraeragina amaitu izanaren ondorioz) ahalbidetu egiten duen egiaztatzea oraindik orain posible eta beharrezko dela gure erantzukizunari dei egitea, zailtasunak gainditzeko akordioak sinatze aldera.

Uste dugu negoziazio kolektibo modernoa, eguneratua eta arian-arian globalizatutako inguru berri, konplexu eta bereziki teknologikora etengabe egokitzen dena mekanismo erabilgarria dela, oraindik, lan-harremanak normalizatzeko eta modernizatzeko.

Horretaz ziur egonda, negoziazio kolektiboak bere osotasunean euskal enpresa eta langileentzat duen leku garrantzitsua aldeko apustua mantentzen dugu Gizarte Elkarrizketarako Mahaiko kideek, bereziki lurraldeko esparru sektorialean.

Horretarako, uste dugu negoziazio kolektiboa oro har (eta, bereziki, berezko dituen hitzarmen sektorialak) beharrezko egituraz, edukiz eta tresnez hornitzea sindikatu- eta enpresa-erakundeen ardura dela, lan-harremanen gobernuan leku garrantzitsua izaten jarrai dezan.

Testuinguru horretan, uste dugu lan-harremanen esparru negoziatu batean, orain arte egin izan den bezala, aukera lehenetsia eraginkortasun normatiboko eta aplikazio orokorreko hitzarmena dela; hots, bere esparruko enpresa eta langile guztiak ukitzeko birtualitate juridikoa duena. Horren erakusgarri da CONFEBASK osatzen duten tokiko enpresek eta CCOO eta UGT sindikatuak sinatzen dituzten hitzarmenek gure mende dauden gehiengoak lortu dituztela, gainbehera saihestuta.

Gehiengo horiek eraginkortasun orokorreko akordioak lortzeko nahiko ez ziren lekuetan ere eraginkortasun mugatuko zenbait hitzarmen lortu dira, arrazoizkoak baino gehiago direnak. Hori erakusten du hitzarmenaren mende egon daitezkeen guztiak masiboki bat egin izan izanak.

Nolanahi ere den, Gizarte Elkarrizketarako Mahaian parte hartzen duten gizarte-eragileok, betiere negoziazio-mahaietako kideen borondatearen autonomia errespetatuz, uste dugu eraginkortasun normatiboko eta orokorreko sektoreko akordioak ezinezko diren egoeretan interesgarri dela eraginkortasun mugatuko hitzarmenak sinatzea, enpresa eta langileen interes eta nahiak egoki bateratzeko adostasunak lortzen direnean.

Azaldutako aurrekariekin bat etorriz, Gizarte Elkarrizketarako Mahaian parte hartzen dutenek honako hau

HITZEMATEN DUTE

1. *Eraginkortasun mugatuko hitzarmenak zabaltzea*

Sektorekako araupetze kolektiboa bultzatzeko eta berritzeko, akordio orokorrik lortzeko aukerarik izan ez arren eraginkortasun mugatuko akordioak lor daitezkeen lekuetan, Gizarte Elkarrizketarako Mahaia osatzen duten enpresa- eta sindikatu-erakundeen ordezkariak hitzematen dute eraginkortasun mugatuko hitzarmen horiek ahal bezainbeste zabalduko eta aplikatuko dituztela ukitutako enpresa eta langileen artean, hitzarmenei ahalik eta eraginkortasun handiena eta aplikazio zabalena emateko.

Helburu hori lortzeko, Eusko Jaurlaritzak bat egiten du adierazitako konpromisoarekin. Horretarako, laguntza aktiboa emango du zabaltze- eta ezagutarazte-lanetan; zehazki, sindikatu eta enpresen ordezkariak sinatutako akordioak gordailuan sartu eta argitaratuko ditu, hitzarmen horiek ez direnean iristen Langileen Estatutuari buruzko Legearen 89.3 artikulua eraginkortasun orokorra aitortzeko ezarritako adierazgarritasun mailetara.

2. *Negoiaziorako euskal esparrua babestea*

Gure sektorekako negoziazio kolektiboa babesteko, lehenetsi egin behar da Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeetan negoziatutakoa. Gainera, ahal bezainbesteko lehentasuna eman behar zaio, Egiturazko Sektoreen arteko Akordio baten bidez. Zehazki, goragoko esparru batean negoziatutakoaren aurrean, lehentasuna eman behar zaie sektorekako negoziazio mahaiek askatasunez adostutako edukiei.

Hori dela eta, Gizarte Elkarrizketarako Mahaia osatzen duten enpresa- eta sindikatu-erakundeok Egiturazko Profesionalen arteko Akordio baten alde egiten dugu, Euskal Autonomia Erkidegoan sinatzen diren eraginkortasun orokorreko lurraldekako hitzarmen kolektiboen aplikazioa errealia eta efektiboa izan dadin.

3. Akordioak etengabe bilatzea

Gure negoziazio-esparrua zaintzearekin batera esparru hori sakon berritzeko eta eraldatzeko ikuspegi bikoitzarekin, Gizarte Elkarrizketarako Mahaian parte hartzen duten gizarte-eragileok uste dugu gure ardura dela negoziazioei eustea eta irtenbideak bilatzen eta sustatzen jarraitzea, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa bultzatzeko, eta enpresek lehiatzeko duten ahalmena sendotzeko.


Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 22an



Arantza Tapia
Ekonomiaren Garapen eta
Lehiakortasuneko
sailburua




Angel Toña
Enplegu eta Gizarte
Politiketako sailburua




Cristina Uriarte
Hezkuntza, Hizkuntza
Politika eta Kulturako
sailburua



Roberto Larrañaga
Presidentea
CONFEBASK



Unai Sordo
Idazkari Nagusia
CCOO-Euskadi



Raúl Arza
Idazkari Nagusia
UGT-Euskadi